

WENTWORTH WEBSTER
(1828-1907)

Egilea:

PATRI URKIZU

Irudian ikusten dugun bizar luze eta urdindun hori apaiz protestante bat da. Ingelesa eta euskaltzalea gainera. Ingalaterra aldean Middlexe-ko Uxbridge-n jaio zen 1828ko ekainaren 26an, hain zuzen, eta Euskal Herriko Saran urte ugari bizi ondoren 1907ko apirilaren 2an hil zen, Donibane Lohizuneko kanposaindu anglikanoan hobiratu zutelarik.

Gazte ikasketak Brighton-go eskola pribatu batean egin zituen, eta 21 urtera iristerakoan Oxford-eko Lincoln College-n Unibertsitate mailakoak burutu, *Master of Arts* titulua lortuz. Ikastetxe hau, jakina den bezala, 1427an eraikia izan zen eta gaur oraindik hobeto kontserbatzen diren goi-eskoletarikoa da, XV. mendeko aurrealde eta barneko kalostrak ia bere-berean dirautelarik. Jon Wesley-k, erlijio metodista asmatu eta sortu zuenak ere, bertan ikasi zuen, eta honen gelak egun kapera bilakatu bide dira.

Unibertsitate tituluaz horniturik, 1852an zientzia-etxe hura utzi zuen, deliberaturik apaiz protestante egitea. Diakono ordenatu eta zegozkion

lanetan hasi zen handik bi urtera Cliford-en (Somerset). Bidaiatzea ere maite zuenez, Eskozia, Alemania eta Suitzan barrena ibili ondoren 1858an Azores uharteak, Rio de Janeiro eta Buenos Aires bisitatu zituen. Eta Europaratutakoan 1861an apaiz oso bilakatu zen eta eliza-jardunak betetzera Pirinio alderantz jo.



Wentworth Webster (1828-1907)



Bechienia etxea Philippe Veyrin-ek egindako irudi batean.

Bagnères-de-Bigorre-n aurkitu zuen emaztetzat hartuko zuena eta bainu-hiri honetan bizi ondoren Miarritzen kokatu zuen egoitza. 1862-1863. urteetan Egipton barrena ausartu zen, eta 1864an Euskal Herrian kokaturik edireten dugu jadanik, eta ekainaren 20an Larrañeko herrixkan *Rixard beldurgabe* pastoralara ikuskatzen. Horren berri Londreseko *Mac-Millan's Magazine* aldizkarian eman zuen hurrengo urtarrilean Hurt anderearekin batera sinatuz. Halaber, oraindik argitaragabe dirauen ingeles itzulpena ere (*Tragedy of Richard, the Fearless, Duke of Normandy*) burutu zuen.

Ingeles koloniak Donibane-Lohizunen 1869an eliza anglikanoa eraiki zuenean, bertako lehen kapelau izendatu zuten. Hantxe lan egin zuen 1882a arte. Bellevue alargunaren *Dajieu-baita* etxean bizi zen, txolarteetan euskal gaiez artikuluak idatziz, ipuinak bilduz alargunaren ahoz, eta besteak beste geroago Hendaiako apaiz izango zenaren alargunaren semeari latina eta inglesa irakatsiz. Gazte-gaztetandik, ordea, osasun ahul eta eskaseko zenez, hobe beharrez egoitza Sarako herri baketsuan kokatu zuen, Lembizkai auzoko *Bechienia* izeneko etxe ederrean.

Bechiena gaur
egun.



3

Hemen urte mordoxka igaro ondoren –mende laurdena zehazki hitz egiteko–, lanean eta zenbait euskaltzalerekin harremanetan (Abbadia, Elizanburu, Manterola, Urquijo...) *Krespotegi* izeneko etxean –gaur *Mendibista* deitu ostatuan–, eman zuen azken arnasa.

Familia oparoa izan zuen. Lau alaba eta seme bat. Denek euskara ikasi

zuten, eta semeak Oxforden bezala alaba batek Cambridgen aurkitu zuen lan irakasle gisara.

Izaeraz apal, atsegin, langile eta emankor zenez, bere liburutegi aberatsa beti irekita zegoen adiskide eta euskaltzaleentzat. Eta adibidez, bere bitartekaritzari esker etorri ziren bai Hugo Schuchardt Grätz-eko hizkuntzalari ospetsua Sarako euskara ikastera eta aztertzerara, bai eta Ingalaterrako lehen ministrari izan zen Gladstone Euskal Herria bisitatzerara.

Hirurogeita bostean hasi zen –ez dugu lehenagoko lanen berri–, eta hil arte liburu eta artikulu ugari idatzi zituen (*une foule d'articles éphémères*, hamaika artikulu iraungaitz, dio berak) ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz, batik bat Euskal Herriko gaiez mintzatuz, Ingalaterran (*Anglican Church Magazine, Athenaeum, Cornhill Magazine, Encyclopaedia Britannica, English Historical Review, Fortnightly Review, Journal of the Gypsy Lore Society, Journal of the Anthropological Institute, Mac-Millans Magazine, The Antiquary, The Swiss Anglican Magazin, The Journal of the Anthropological institute of Great Britain, The Pyreanean, The Season, The Treasury of languages, The Academy...*), Estatu Batuetan (*Encyclopaedia of Religion and Ethics...*), Frantzia (*Bulletin de la Société Ramond, Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Bulletin de la Société de Borda, Bulletin Hispanique, Bulletin de Biarritz Association, La Nouvelle Revue, La Réforme Sociale, La Tradition au Pays Basque, Revue de*

Linguistique et de Philologie comparée, Revue des Études Anciennes, Revue du Béarn et du Pays Basque), eta Espainian (*Boletín de la Academia de la Historia, Boletín de la Institución Libre de Enseñanza, España regional, Euskalzale, Euskal Erria, Euskalerraren Alde, La Ilustración católica, Revista contemporánea, Revista crítica de Historia y Literatura Españolas, ...*).

Hori dela eta garaiko jakintsu eta euskalari gehientsuenekin harreman estuak izan zituen, bere gutuneria aberatsak adierazten digunez. Gutun hartzaile eta igorle batzuk soilik aipatzekotan hona zenbait izen: Anton Abbadia, Louis Lucien Bonaparte, Karmelo Etxegarai, Jose Manterola, Marzelino Menendez Pelayo, John Rys, Hugo Schuchardt, Julio de Urquijo, Julien Vinson...

Argitaratu zituen obra nagusiak hauexek izan ziren: *Basques Legends* (1877), *Spain* (1882), *Some features of Modern Romanism* (1890 ing.), *Pierre d'Urte-ren Grammaire Cantabrique Basque* (1900), *Les loisirs d'un Étranger au Pays Basque* (1901), eta

Gleaning in Church History, chiefly in Spain and France (1903).

Bere liburutegiko eskuizkribu zenbait Baionako Herri Liburutegira iragan ziren, ezen galdetu ziotenean ea Parisekoan ala Baionakoan nahi zituen utzi, bere erantzuna Euskal Herrian uzteko izan zen, Dulaney, Hiriart eta Ducéré jaunekin zordun baitzen, Baionako liburutegian bertan hainbat ikerketa burutua zenez (1904-X-10eko gutuna). Hauek noski, euskal literaturaren historiarako harri bitxi eder eta prezios dirateke, hala nola legendak eta antzerkiak, besteak beste.



Rixard, Normandiako Dukea pastoralaren ingeles itzulpena.

INGLES EUSKALARI AITZINDARIAK

Errenazimenduarekin batera hasi ziren Europako herri ezberdinen hizkuntzetara itzultzen Biblia. Bide honetan ez zen atzeratuenetakoa izan euskara, zeren Joanes Leizarragak eta bere taldeak, Joana Albretetako Nafarroako erreginarekin aginduz, euskaratu eta 1571n plazaratu baitzuen Rochellan *Testamentu Berria*. Zertxobait beranduxeagokoak dira welsheraz B. Lhoyd apezpikuaren ardurapean egin Bibliaren itzulpena (Oxford, 1610), edota gaelikoz William Bedelek eginikoa (Londres, 1685).

XVII. mendean Plunkett delako batek –Olivier Plunkett (1629-1681) artzapezpiku eta Irlandako elizaren buru izatera iritsi zenak, eta bere zelo handiagatik traizio akusaziopean epaitu eta Londresen hil zutena ote?–, latin-ingeles-euskara hiztegitxo bat idatzi zuen. Orijinala Dublingo Trinity College-ko liburutegian aurki daiteke.

Beste hizkuntzalari eta zientzia-gizon ospetsua Edward Lhwyd (1660-1709) dugu, Ashmoleo Erakustegiko kontserbatzailea eta aipatu Trinity-ko liburuzaina. Jakintsu hau 1696an *Lhwyd's News* kazeta argitaratzen hasi zen. Gobernuaren aurka panfleto bat idazteagatik gartzeleratua ere izan zen, baina ez zuen iraun presondegian

6


denbora luzez. Garaiko zientzialari gehientsuenekin bazuen gutun harremanik (Hans Sloane, Londreseko British Museum-eko liburutegiaren sortzaileetarikoa eta Royal Society-ko buru izatera iritsi zenarekin, Williams Jones matematikariarekin, Wyne eta Perry natur zientzia-gizonekin...) eta utzi zituen eskuizkribuetarik bat argitaratu nuen duela urte batzuk. Hau hiztegitxo poliglota bat da, hots, euskara-latina-ingelesa eta gaelikoa. Nabari da bere obra nagusienean, *Archaeologia Britannica, ...* (1707), hizkuntza zeltak eta euskara ahaidetzat jotzen zituela, eta mendeko ideiei jarraikiz, esaten digu, eskoziera, irishera, euskara eta espainiera zaharra hitz zerrenda batzuen medioz (batetik hamarrerako zenbakiak adibidez) frogatzen bide denaren arabera izter-lehengusuak direla.

Beste eruditu bat John Chamberlaine (1666-1723) –Gorka, Danimarkako printzearen ganbarazain izan zena–, bere aita Edouard-en bideari jarraitu ziona *Angliae Notitiae...* 1692, argitaratzen. Haren liburuaren artean aurkitzen da Amsterdamen hizkuntza anitzetara itzulirik plazaratu zuen *Oratio Dominica...* (1715), hau da, *Gure Aita...*, ekialdeko hizkuntzetan adituak egindako itzulpenak bilduz.

Honen hitzaurrean David Wilkins (1685-1745) orientalista eta Lambeth jauregiko liburuzainak dioskun bezala, aurkezten diren euskarazko hiru *Aita Gure* ezberdinak bat Leizarragaren *Testamentu Berria*-tik (1571), bestea Joanes Haranbururen *Debocino escuarra, miraila eta oracinotegua...*-tik (1635), eta hirugarrena Pierre d’Urte donibandarrak emandakoak dira. Hainbat hizkuntzatan ageri otoitzaren bitartez frogatu nahi zen haien arteko nonbaiteko ahaidetasuna, hala nola guztien artean hebraierak zeukan lehentasuna. Euskara hor egotearen arrazoia Lhwyd-en ideiei jarraikiz hizkuntza zeltekin zeukan lotura eta harremanean zetzan, noski.

Dena den, eta XIX. mendean zenbait ikerketa bide horretatik joan arren, aski frogaturik gelditu zen, usteak uste, bide oker eta ustela zela hori, eta XX. mendean Koldo Mitxelenak bereak eginez Charles Boudak eta Nils M. Holmerrek eginiko azterketa sakon eta kritikak honako ondoriora iristen da, alegia, irudipenezkoak baizik ez direla, *orain arte behintzat multzo hori, guztiori ahaidetasun kontuan biltzen duen lokarria.*





Edward Spencer Dogson euskaltzale ingelesa (1857-1922).

BASQUE LEGENDS (London, 1877)

Webster izan genuen euskal literaturaren lehen zabaltzaileetarikoa Ingalaterran. Esan dugunez, jada 1865ean aipatu zituen pastoralak Londreseko kazeta batean. Geroago, biltze eta itzultze lan handi baten ondorioz, hau da, Lapurdin batik bat bilduriko legendekin eta Vinsonek euskarari buruz idatzitako saiotxo ttipi batekin, Griffith and Farran argitaletxean.


Berrogeita zazpi ipuin bildu zituen bertan eta hauetarik lau P. Sebillot-ek frantsesera itzuli zituen eta *Contes des Provinces de France-n* argitaratu. Beste batzuk Vinsonek bere *Le Folklore du Pays Basque* (1881) ospetsuan.

Bigarren edizioa 1879an agertu zen, baina Vinsonen lana gabe. Badu, ordea, eranskin benetan interesgarria, *Basque Poetry* izenekoa (235-276 or.), hau da, euskal poesiaren azterketa. Alde batetik, pastoralak, poema eta kanta anonimoak aipatzen ditu, eta, bestetik, idazle ezagunak hala nola Etxahun, Iparragirre eta Elizanburu. Bertso horiek euskaraz eta ingelesez daude.



Euskal Leizendak,
Londresen 1877an
argitaratu edizioko
portada.

Xipri Alberbidek
1993an egin
edizioaren portada.




Informatzaileen artean honako izenak topatzen ditugu: 1. Estefanella Hirigarai Ahetzekoa; 2. Gaña-haurra Hirigarai; 3. Pierre Bertrand; 4. Laurentina Kopena; 5. Fantxun Beltzarri; 6. Katterina Elizondo; 7. Gaxina; 8. Louise Lanusse, Donibane Garazikoa; 9. Louise Anyot eta 10. Laurentina Kopenaren ahizpa.

Zortzi sail ezberdinetan bereizi zituen: I. Tartarori buruzko leiendak. II. Heren Sugearenak. III. Animalienak. IV. Basa-jauna, Basa-andrea eta Laminak. V. Sorginak eta sorginkeriak. VI. Misteriozkoak: a) Herrialde zeltetakoak bezalakoak; b) Frantsesetik hartuak. VII. Erliziozkoak.


Xipri Alberbidek 1993an, Baionako herri liburutegian lotan zetzan bertsio orijinala transkribatu eta hitzaurre batez lagundurik argitaratu zuen lehen aldiz ingelesezko itzulpena, ehun eta hogeitau urte beranduago. Bere argitalpenean beste hiru kontalarien izenak ageri zaizkigu, alegia, M. Larralde Senperekoa, Maria Hiriart Sarakoa eta Bidarraiko errieta zen Julien Olhasso. Ikus dezakegunez, argi eta garbi dago ipuin kontalari gehienak emakumeak direla, gurean bezala beste lurralde eta hizkuntzetan ere gertatu ohi dena.

Euskaraz plazaratu zen lehen bilduma Jean François Cerquand Frantziako Akademiako behatzaileak burutu zuen Paueko *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts* (1874-1885) errebistan frantsesez eta euskaraz... Ehun eta hamazazpi frantsesez eta zortzi gutxiago euskaraz.



Lan honi buruz Websterrek idatzitako erreseina batean honako hau dio, alegia, testuok jasotzerakoan oso zehatz-mehatz egin behar dela, *impsissima verba*, helenista batek grekerazko palinpsesto bat eginen lukeen eran, zeren atso eta laborarien ixtorio hauek aspaldiko kontuak edota gertaera eta jakintza oso zaharrak adieraz bailitzateke.

Garai beretsuan Abbadiak bultzaturik Augustin Etcheberri saratar poetak bildu eta idatzi zituen zenbait ipuin. Tamalez duela oso gutxi arte ez dira argitaratu, Kalzakorta jaunak *Lamia, Sorgin eta Tartaroen erresuma ezkutua* (Labayru, 1997) titulu polilitarekin plazaratu arte, hain zuzen, azterketa eta facsimilez horniturik.



Javi Cigaren koadro batez Miraguano argitaletxeak 1989an egin portada.



Beste zenbait bilduma ere XIX. mendean argitaratu ziren, hala nola, J. M. Goizuetarena (*Leyendas vascongadas*, 1851) gaztelaniaz, F. Michelena (*Le romancero du pays basque*, 1859) frantsesez, edota M. Monteirorena (*Legends and populars tales of the basque people*, 1887) ingelesez, baina hauetaz Vinsonekin batera esan behar da, ipuin horiek ez dutela ia deus ere ikustekorik herri-ipuinekin.

Beraz, Webster, Cerquand eta Etcheberri ditugu XIX. mendeko biltzaile nagusiak, bertako eta atzerriko folkloristak, XX. mendeko biltzaile nagusi izan diren Barandiaran eta Azkueren aitzindari.

11



Baionako Herri
Liburutegian
dagoen Ipuinez
Websterrek egin
eskuizkribua.

SPAIN (1882)

Londresen Simpson Low, ea. argitaletxean plazaratu zen bidaiagida hau *Foreign Countries and British Colonies* «Atzerriak eta Britainiar Koloniak» izeneko bildumaren ale bat da. Bederatzi kapitulutuan idatzia, hiru aurkibide eta halako gidetan ohiko ziren zenbait irudi ederrez hornituta dago. Euskaldunei eskainitako zatitxo oso ttipia da benetan (70-73 or.) Eta hala iberiar nola zeltiberiarrekin batera ikertzen ditu.



Londresen 1882an Espainiari buruz idatzi liburua.



Spain liburuko irudietarik bat: Cadiz-eko portua.

LE DICTIONNAIRE LATIN-BASQUE DE PIERRE D'URTE (1895)

Websterrek Ingalaterrako Earl of Macclesfielden gazteluko liburutegian dagoen eta Betiri Urte donibandarrak 1715. urte inguruan idatzi *Dictionarium latino-cantabricum* delakoaren (MS. 112 N 13-17) berri ematen digu 1895ean plazaratu lantxo batean. Dena den ez dirudi interes gehiegirik sortu zuenik bere aipamen eta hiztegi zatitxoak (*A, ab, abs*-etik *ablegare*-rainokoak) euskal hizkuntzalarien artean, Azkue jaunak, «es y creo será siempre obra inédita», baitzioen.

Ez ziren gauzak honela gertatu, ordea, neronek plazaratu bainuen nire doktore tesi gisa (Donostia, Mundaiz, 1989) donibandarraren eskuizkribu osoa, eta ez soilik orijinalaren latina-euskarako 2.457 orrialdeen transkripzioa, baizik eta ikerketa eta euskara-frantsesa-gaztelania-latina hiztegia berregituraturik, Websterrek ireki bideari jarraikiz eta euskal lexikografian urrats aski interesgarria emanaz, ene uste apalean.



Betri Urteren *Latin-euskara* hiztegiak 1895ean egin artikuluaeren portada.

PIERRE D'URTE, GRAMMAIRE CANTABRIQUE BASQUE (1900)

Ingalaterrako Watlington herrixkan, Shirburn gazteluko liburutegian bada eskuzkribu bat, honela katalogaturik: Pierre D'Urte, *Grammaire cantabrique basque*, North Library, 112, H 18. Hemendik kopiatu zuten A. Clark eta Ll. Thomas jaunek 1892-93 urteetan gramatikako zenbait frantses-euskara hiztegitxo, eta beste zatitxoak Oxford-eko Bodleian Libraryn daudenak (MS, n^o 31640, 32380). Badago lurralde urrun haietatik at, gertuago, Baionako aipatu liburutegian Urteren beste eskuzkribu bat Margaret Lée kopiagile profesionalak egina eta Websterrek 1906an oparitua, 468 orrialde dituen.

Vinsonek eta Clark-ek 1893an plazaratu zuten *Revue de Linguistique et Philologie Comparée* deituan gramatikako zenbait hiztegitxo edo izen zerrenda. Hala ere, Urtek frantsesez 1712an gutxi gorabehera idatzi zuen *Euskal Gramatika* Webster-ek moldiztegitatu zuen lehenik zatitxo bat (1896) eta geroxeago oso-osorik. Parte handi batean Abbadiaren diru laguntzaz argitaratu zen ehun aleko edizioa, Bagnères-de-Bigorre-ko D. Berot-en argitaletxean 1900. urtean.

Kontuan hartzen badugu Larramendiren Gramatika, edo *El Imposible Vencido...* «Ezina egina» Salamankan 1729an agertu zela eta Harriena Baionan 1741ean, beste aurkikunde edo ediren harrigarrik egiten ez den bitartean (Jacques de Bela, Dominique Bidegaray, e.a.) iritsi zaigun lehen gramatika luzea Pierre d'Urterena dela aitortu behar dugu.

Fonetika oharrek, esaera zaharrek, etimologiek, hiztegi bereziek, aditzaz 300 orrialdetik gorakoek, esaldi eta hizkuntza ardurakoek, joskeraz eta erretorikaz ematen dizkigun albistek gramatika benetan aberats eta interesgarri baten aurrean gaudela adierazten dute. Eta hauxe da preziso Websterren iritzia, aditzaren xehetasunak Larramendik baino askoz zehatzagoa ematen baitizkigu. Intxauspe eta Bonaparteren azterketen aitzindari bilakatzen da, gainera.



Betri Urteren *Euskal Gramatika*-z 1990ean egin liburuaren portada.



Euskal herriko ikusgarriak arrotz batentzat 1901ean plazaratu portada.

Gramatika honen kaosa aipatua izan den arren, kontuan hartu behar da Urtek ez zuela argitaratu eta material hauek plazaratzekotan ziurrenik beste ordena batean emanen zizkigula, dudarik gabe. Websterren edizioa, noski, beste berrikuste eta antolamendu berriaren beharrean aurkitzen da.

Urtek Bibliaren itzulpena ere hasi zuen, baina lehen bi liburuekin nekatu bide zen, alegia Testamentu Zaharreko *Ethorquia* eta *Ilkhitcea*-ren hogeita bi kapitulu besterik ez baitzigun utzi. Zati hauek Llewelyn Thomas-ek argitaratu zituen Oxford-en 1894an, titulu honekin, *The earliest Translation of the Old Testament into the Basque Language (a fragment)*, hots, «Testamentu zaharreko itzulpenik zaharrena euskarara (zati bat)». Aitzin-solasgileak Websterri eskerrak ematen dizkio sarrera hitzetan, euskal gaiez duen jakituriaz lagundu diolako. Halaber liburu hau bi eranskinez horniturik dator. A, Vinsonek egina, itzulpenean ageri diren adizkerez osatua, eta bestea, B, Edward Spencer Dodgson euskalariak Bibliaren euskal itzulpenez egina. Hauen artean azpimarra daiteke George Borrow protestante eta poliglota ingelesak bultzatu eta argitaratu zuen Oteiza medikuak gipuzkerara itzultitako *Evangelioa San Lucasen guissan* (Madrid, 1838).


LES LOISIRS D'UN ÉTRANGER AU PAYS BASQUE (1901)

Websterrek interes handiena eta bereziena zuten artikuluen bildumaz liburu eder bat osatu zuen bere adiskideen artean banatzeko. Honako titulua ipini zion, *Les loisirs d'un étranger au Pays Basque*, alegia, «Atzerritar batek Euskal Herrian atxiki ditzakeen entretenimenduak». Châlons-sur Saône-n inprimatu zuen E. Bertrand-en etxean.

Liburu hau aski edizio arraroa eta aurkiezina bilakatu zenez, duen tituluaz gain, beste honekin eman du argitara berriki Elkarlanean argitaletxeak: *À la découverte des Basques. Mœurs et Institutions, République des Pyrénées, Faceries, Pastorales, etc.* «Euskaldunen bila. Ohiturak eta Erakundeak, Piriniotako Errepublikak, Iruzkiak, Pastoralak, e.a.» (Donostia, 1998), Manex Goyhenetxeren hitzaurre ttipi batez lagundurik.

Artikuluak zientzi arlo ezberdinez dira, hala nola, historia, hizkuntzalaritza, antropologia, eskubidea, teatroa, dantza, poesia... Eta egia baldin bada, zenbait lan, batez ere euskaldunen etorkiaz mintzo direnak, zertxobait pasatuxeak daudela, beste batzuek sorkuntzazko interes bera mantentzen dute, eta

garaiko informazio berezia eskaintzen: pastoralak, bertsolariak, gaztainondo eritasuna, burnibideak, gizon eta andreen arteko harremanak, Euskal Herrietako biltzarrak...



Euskaldunak erideiten 1901ean plazaratu liburuaren 1998ko portada.

Hitzaurrean dioen bezala, gaiak ez daude guztiz argituta, erabili duen biblioteka bakarra etxean daukana izan baita. Halere, bere ahaleginean, itzulpenak eta bigarren eskuko dokumentuak saihesten eta herriko jendearekin, euskara oso ongi menderatzen ez duen arren, zuzenean hitz egiten saiatu dela diosku. Hona liburuan biltzen dituen hamalau artikuluen tituluak euskaraturik:

I. Euskaldunak.

- II. Behe-Pirineoetako departamenduan egin zenbait eraikintzei buruzko oharrak.
- III. Monforteko Simon eta ingles parlamentua (1248-1265).
- IV. Pirinio lurraldeko ohitura eta erakundeez zenbait ohar arkeologiko.
- V. Errepublika hitza Mendebaldeko Pirinioetan. Agiri ezaugarriak.
- VI. Euskal Herrietako lur komunalez egin nazioarteko itunak. Agiri ezaugarriak.
- VII. Euskal Herriko eta inguruetao zenbait inskripzio.
- VIII. Euskal pastoralak.
- IX. Aziendaren elkar-segurantzak eta Frantziako hego-mendebaldean eta Espainiako Iparraldean emandako laborarien arteko itunak.
- X. 1892-1894ko urteetan zehar atzeritarrek euskarari buruz egindako zenbait lanez.
- XI. Euskaldunen arteko zin egite nagusia.
- XII. «Sator-Arepo» formula magikoa.

- XIII. Nola Espainiako artzapezpiku eta kardenal baten irainetarik ingles batek defendatu zituen euskaldunak 1888an.
- XIV. Behe-Pirinioetako estatu nagusiaren mapaz.



Serorei buruz 1905ean plazaratu artikuluaren portada.

Hamalau artikulu hauek benetan garrantzitsuak dira euskal historiografiarako, zeren ikerketa konparatiboak egiteaz gain, beti saiatzen baita esaten dituenak *pièces justificatives*, hots, testu justifikatzaile edo agiri ezaugarriak direnez horniturik joan daitezten. Honek behartzen zuen, jakina, artxiboetan (adibidez, Sarako udaletxeoan...) eta lehen eskuko liburuetan murgiltzera.

GUTUNAK


Hainbat zientzia-gizonekin harremanetan izan zenez, gutun multzo aberatsa idatzi zuen, noski, batik bat frantsesez eta ingelesez. Philippe Veyrin-ek Baionako Euskal Museoan aurkitu eta zenbait plazaratu zituen (*RIEV*, 1934-1935). Besteak beste, Louis Lucien Bonaparte, Abbadie d'Arrast-eko Anderea, Leon Hiriart artxiberoa, De Bidegaray ipuinak frantsesera itzultzen ari zena, Miguel de Masso Auritzeko alkatea eta Karmelo Etxegaray historialariarekin izandako gutunak irakur ditzakegu. Beste aldetik, Julio de Urquijorekin edukitako harremanen ondorioz badira beste batzuk *RIEV*-eko zuzendariak argitaratu zituenak Rodney Gallop-en *A Book of the Basques...* (London, 1930) komentatuz bere «Vascófilos

ingleses» artikulu ospetsuan. Baina, oraindik argitaragabe daude Anton Abbadiari ingelesez idatzi zizkion gutunak eta Pariseko Liburutegi Nazionalean (nouvelles acquisitions françaises «frantses erosketa berriak», nº 21748 sailean) aurki daitezkeenak, garaiko jakintsu hauen kezka zein ziren jakiteko interesgarri eta nahitaezko direnak



Julio Urkixori bidali gutun-azala.

WW sinatuz Wentworth
Websterrek 1906an ingelesez
idatzi gutuna.




ESKUZKRIBUAK

Aipatu berri ditugun gutunez at, argitaragabe utzi zituen lanen eta Baionako Herri Liburutegian aurkitu ditugunen artean, Arbelbidek plazaratu lpuinen etorkizko bertsioaz aparte, Jean Etcheberri Uztaritzeko Gurutzearen Alabak eskolako kalonjearen *Arroltze Ohoina* antzerkia dago. Saran 1884an eskolako neskek antzeztu obratxoa da, Louise Sellé saratarraren orijinaletik kopiatu zuena (MS, z. 88) eta guk *Egan*-en argitaratu genuena (1986). Badirudi frantsesetik moldaturik dagoela. Antzerkitxo honek helburu bezala gazteak libertiarazteaz



Sarako Crespotegitik 1906an ingelesez igorri gutuna.



Jean Etcheberrien *Arroltze ohoina* antzerki eskuizkribua.



Rixard beldurgabearen pastoral eskuizkribua.

gain, Lapurdiko apaizak hainbeste kezkatzen zituzten herri sinesteak, eta sorginkeriaren gaia zuen antzezgai.

Baionako Euskal Museoaren liburutegian (tamalez hamaika urte jada itxia dagoen altxorra), Manu de la Sotak 1966an eginiko oparia ere aurki daiteke: *Andre Usoa eta bere orratze ipuina* (MS. 91).

Balirateke hainbat xehetasun gehiago esateko ingeles euskaltzale honetaz, baina, hona bada hemen emana Wentworth Webster apaiz

protestante eta euskaltzale handiaren bizitza eta idazlanen berria laburzki. Ongi merezitakoa du, beraz, *Bechienia* etxaltean euskaltzaleek eraiki zioten oroitarria:

Wentworth Webster
Euskaldunen adiskide
Kartsu eta jakintsuari
1828-1907
Etche huntan
Bizi izan zen
Hamabi urthe
Krespoteagian hil zen.



Wentworth Webster-en oroit-harria Sarako *Bechienia*-n.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Patri Urkizu.*
- *Koldo Mitxelena Kulturunea.*
- *Baionako Herri Liburutegia.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1611-5 (Obra osoa)
84-457-1615-8

L.G.: BI-3124-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística